



Arartekoaren 2019IR-434-18 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 21ekoa. Horren bidez, amaitutzat jo da Gasteizko emakumeen gaineko indarkeriaren auzitegi berrian lekualdatzean biktimen segurtasun-arazoak salatzeko kexan jarduera.

Aurrekariak eta zuzenbidearen oinarriak

Lehenengoa.- Justizia-administrazioko langileen ordezkariak burutu ostean, 2018ko martxoaren 3an egunkarietan adierazpen kezkgarriak azaldu ziren. Protesta egiten zuten, Arabako hiriburuko justizia jauregian Gasteizko emakumeen gaineko indarkeriaren auzitegiari zegozkion bulegoetan emakumeen segurtasunak okerrera egin baitzezakeen, eraso jaso ondoren ingurune segurua eta babesa behar izan arren. Auzitegiko bulegoek kokapena aldatu behar zuten Gasteizko etorbideko eraikinetik atera gabe. Nolanahi ere, aldaketarekin tentsio-egoera gehiago gerta zitezkeen, adibidez, erasotzaileak eta biktimak sarbide berdina erabili behar zutelako.

Azaldutakoarengatik, Arartekoaren iritziz ofiziozko jarduera gauzatu behar zen. Arartekoaren solaskide nagusia Lan eta Justizia Saila izatea alde batera utzita, halaber, langile eta operadore juridikoen ikuspegiak (JANren Gobernu Sala, Fiskaltza, Biktimei Arreta Eskaintzeko Zerbitza eta Abokatuen Elkargoak) lortu nahi ziren. Helburua diagnostikoa burutu eta hobekuntza-tarteari modu koordinatuan aurre egitea zen, batera Euskadin emakumeen gaineko indarkeriaren auzitegi eredurantz aurrerapausoak emateko eta, bide batez, biktimei 4/2015 Legeak, apirilaren 27koak, delitu-biktimaren estatutuari buruzkoak, onartutako eskubideak eraginkortasunez erabili eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko.

Bigarrena.- 2018ko maiatzaren 7an Lan eta Justizia Sailak Arartekoak eskatutako informazioari erantzun zion. Ildo horri eutsiz, bigarrenak biktimen eta, bereziki, talde kalteberenen eskubideak errespetatzeko azpiegitura judizialak egokitzearen testuinguruan sinatu zuen eskaera. Izan ere, Arartekoak ez zuen lehenengoz alderdi hori aztergai. Dena den, Lan eta Justizia Sailak betiere bere laguntza eskaini du.

Erantzunari erreparatuz, Lan eta Justizia sailburuak, lehenik eta behin, Gasteizko emakumeen gaineko indarkeria auzitegiko obrak testuinguruan jarri eta arrazoitu ditu. Arartekoa eta Eusko Jaurlaritzak, zehatz-mehatz esanda, arloan sail aginpideduna, hau da, Lan eta Justizia Saila beti kezkatu azaldu dira emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegiekin.

Kezka partekatuak, funtsean, 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Istanbulerako Hitzarmenak emandako gidalorroetan eta delitu-biktimen estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean du bere jatorria.



Zehazki, **Istanbul**eko Hitzarmenak 56.1.g artikuluan estatu sinatzaileek honakoa babestea aurrez ikusten du: *“siempre que sea posible, se evite el contacto entre las víctimas y los autores de los delitos en la sede de los tribunales o de los locales de las fuerzas y cuerpos de seguridad”*.

Bestalde, 4/2015 Legeak 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, **biktimaren eta arau-hauslearen artean harremana saihesteko eskubidea dago**. Aurrekoaren harira, hala dio: *“Las dependencias en las que se desarrollen los actos del procedimiento penal, incluida la fase de investigación, estarán dispuestas de modo que se evite el contacto directo entre las víctimas y sus familiares, de una parte, y el sospechoso de lo infracción o acusado, de otra, con arreglo a la Ley de Enjuiciamiento Criminal y sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos siguientes”*.

Era berean, Lan eta Justizia sailburuaren hitzei eutsiz, gidalerroek beren isla izan dute gobernatzeko EAJ eta PSE-EEK sinatutako oinarritzko akordioan (“Segurtasun eta Justiziako Zerbitzu Publikoak” 2.5 Ataleko 7. konpromisoa) eta Euskadi 2020 dokumentuan, hain zuzen ere, XI. Legealdirako Gobernu Programan (157 konpromisoa, 3 ekimena).

Horrez gain, arlo honetan Lan eta Justizia Sailaren konpromisoak, Legebiltzarrean hainbat esku-hartzetan defendatutakoak, honako hauek dira:

- Auzitegien babesa bermatzea eta emakumeen gaineko indarkeriaren auzitegiei atxikitako langileen egonkortasunerako neurriak zehaztea.
- Berdintasunaren arloan justizia administrazioko epaileen, fiskalen eta abokatuen prestakuntza gaitzea. Gauza bera egitea justizia zerbitzuko funtzionario eta langileekin. Helburua genero-indarkerian diharduten operadore guztien sentsibilizazioa indartzea da.
- Bidezkoa bada, Biktimen Arreta Zerbitzua sendotzea.
- **Justizia jauregi guztiak ikuskatzea, birbanaketak aztertu eta eremuak hobetzeko. Ibilbide desberdinak definitu nahi dira, biktimaren eta erasotzailearen arteko kontaktua saihesteko eta, modu horretan, biktimen estatutuan eta Istanbul**eko hitzarmenean aurrez ikusitakoa betetzeko.
- Abokatu espezializatuen laguntza-zerbitzuak indartzea, zehazki, indarkeriaren txanda, deklarazioak ez atzeratzeko. Neurriak zehazteko maiatzaren amaieran abokatuen elkargoekin bilera bat egitea aurrez ikusia dago. Etxeko nahiz generoko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak direnen laguntza-juridikoari buruzko hitzarmena, 2007ko otsailean sinatutakoa, ikuskatuko da.

Aurrekoari eutsiz, sailburuaren esanetan, kargua hartu eta denbora gutxira, Gasteizko justizia jauregia bisitatu eta epaile dekanoarekin bildu ostean, horrek



emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegirako bulego berriak eskatu zizkion, ordura artekoek segurtasun-baldintzak betetzen ez baitzituzten. 2017ko urtarrilean, sailak lehenengo proposamena egin zuen eta epaile dekanuari aurkeztu zion. Halaber, Audientziako buruarekin eta emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegiko epailearekin adostu zen. 10 hilabeteko prozesuaren ondoren, langileen batzarrak adierazitako hasierako ezezkoa desblokeatu zen.

2018ko urtarrilaren 26an obrak amaituak eta inauguratzearen zain zeuden. Orduan, egunkarietan adierazpenak azaldu ziren eta Arartekoak ofizioz jardutea eragin zuten

Bere erantzunean, Lan eta Justizia sailburuak obrak zertan oinarritu diren azaldu du eta informazioa osatzeko erakunde honi 2018ko maiatzaren 23ko azalpen-planoak bidali dizkio. Azkenik, Arartekoari gonbita luzatu dio obrak bisitatzeko.

Hirugarrena.- 2019ko ekainaren 1ean Arartekoak obrak bisitatu zituen, hilabeteetan zehar nahasitako alde batzuen (hala nola, langileen taldea eta ELA sindikatua) informazioa lortu ondoren. Gainera, kontaktu ugari izan zituen operadore juridiko eta Lan eta Justizia Sailarekin, egoera desblokeatzen saiatzeko, baita helburuak betetzeari begira egindako obren moldapena adosteko ere.

Puntu honetan adierazi behar da Arartekoarekin Lan eta Justizia Sailaren jarrera une oro lankidetzakoa izan dela. Hala, helburuetara egokitzearen inguruan, obrak ez dira bukatutzat eman nahi izan bi erakundeen arteko adostasunera iritsi arte.

Beraz, 2019ko ekainaren 1ean Gasteizko justizia jauregia bisitatu zen *bertan* obrak (guztira 65.000 euroko kostua) ikusi eta ulertzeko, baita operadore juridikoen eta bestelako esku-hartzaile adituen (besteak beste, Arartekoaren ohiko solaskide izan den Lan eta Justizia Sailaren beraren Biktimekiko Arreta Zerbitzua) iritziak ezagutzeko ere. Biktimen Arreta Zerbitzua Euskadiko Justizia Administrazioaren zatia da eta genero-indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen espezializatua dago. Izan ere, horiek urtean arreta jasotzen duten pertsonen %50 dira. Horrez gain, Biktimen Arreta Zerbitzuak biktimak auzitegietan jardun judizialean laguntzen ditu, beharrezkoa denean.

Esku hartu duten guztiei entzun ostean eta eremu berriak ikusi ondoren, Arartekoak hurrengo ondorioa atera du: egindako obrak ahalegin goresgarria eta abiapuntu ona izan arren, biktimen eskubideak eta langileenak kontuan hartuta, genero-indarkeriaren biktimen segurtasuna eta arreta nahikoa bermatzen ez dutela. Aurrekoaren harira, Lan eta Justizia Sailari proposatu zitzaion, hain arlo delikatuan etengabeko ebaluazio-konpromisoaren barruan, berriz pentsatzea eremuak, Arartekoak eskuratutako esku-hartzaile desberdinen argudioei erreparatuz.

Laugarrena.- 2019ko uztailaren 10ean Arartekoan Lan eta Justizia Sailaren erantzuna jaso zen. Horretan, obra-proiektu berria zehazten zen eta berehala hasiko da egiten. Nolanahi ere, adoste-prozesuan esku-hartzaile guztiek planteatutako





eske guztiei erantzungo zaie. Zehatz-mehatz esanda, proiektu berriak, kokapen orokorra mantenduta, sailak berak adierazitakoari jarraiki, hurrengo alderdiak zuzendu nahi ditu:

- ❖ Bulego zehatzen artean isolamendu akustiko urria (bereziki, deklarazioetarako erabilera askoko 1 gelaren eta biktimen itxarote-gelaren artekoa).
- ❖ Biktimen itxarote-gelan leiho eta komunik ez izatea edo azalera urria suertatzea.
- ❖ Erabilera askoko 2 gelan funtzionarioen kalteberatasuna (bulegoarekiko urrun eta isolatuak baitaude).

Alderdi horiei aurre egiteko, azkenean Lan eta Justizia Sailak gauzatuko duen proiektuan hurrengo **hobekuntzak daude 2018ko otsailean amaitutako obrekiko:**

- Erabilera askoko 2 gela deklarazioetarako erabilera askoko 1 gelara sartzeko korridorean kokatuko da, korridorea kamerek kontrolatzen baitute. Gainera, bulegotik hurbilago geldituko da. Kokapen hori, modu berean, noizean behin biktimen itxarote-gela modura erabil daiteke.
- Biktimen itxarote-gela ere beste toki batean kokatuko da. Leihorik gabe mantenduko da (leihoak mugatuak direnez, arrazoizkoa dirudi lanaldi osoan auzitegian egon behar duten funtzionarioek onura ateratzea), baina azalera handiagoa emango zaio (9,13 m²-tik 11,10 m²-ra pasako da) eta haurtxoak aldatzeko gunez hornituta, komuna izango du (beste 3,34 m²). Hala, gehienez 8 pertsona eta 2 haur-kotxe hartzeko espazioa nahikoa da. Horrez gain, haurrek jolasteko mahaia eta ur-iturria aurkituko dituzte.
- Erabilera askoko gelak bereizteko itxiturak igeltserotzaz egitea aurrez ikusia dago, isolamendu akustikoa hobea izateko.
- Bulegoan sukalongoaren aukera (hozkailua, mikrouhin labea, etab.) aztertu da, biktimen beharrei erantzuteko.

Aldeen eta langileen banaketa eta babesa bermatzeko segurtasun-neurriei dagokienez, proposamenean honako moduan geldituko lirateke:

- 3 kamera (eskailera-igogailu publikoen gunetik auzitegira sartzeko korridorean, zonako erakusmahaietan eta erabilera askoko 1 eta 2 korridorean).
- Sarbideen kontrola: 3 txartel-makina (erabilera askoko 2 gela, biktimen itxarote-gela eta lekukoaren itxarote-aretoa) erakusmahaietan dagoenak





urrunetik irekitzeko eta ohiko beste 3 (epaile eta abokatuaren korridorarako, erabilera askoko 1 gelarako eta bulegorako sarbideak).

- Komunikazioak: 4 interfono, auzitegiko erakusmahaiarekin komunikatuak (erabilera askoko 2 gela eta biktimak, lekukoak eta kaltegileak itxaroteko gelak).
- Alarmak: Erakusmahaietan eta erabilera askoko 1 eta 2 geletan mahaien azpian beldurraren txirrinak.

Azkenik, sailak azaldutakoaren arabera, proiektu berri honekin biktimak eta erasotzailea aurrez aurre jartzea instalazioek "saihestuko" dute, baina, batik bat, zitazioen kudeaketak, bertan egoteko denborek eta moduek helburuari egokitzea sustatuko dute.

Amaitzeko, Lan eta Justizia Sailak emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegia zaharbertzeko proiektu berriaz gain, **beste neurri batzuk ere baditu**, prozesu guztian zehar **esku-hartzaile desberdinen iradokizunak kontuan hartuta**:

- Hezetan-maila hobetzeko alderdia da. % 40-50era gehitu behar da. Nolanahi ere, hasieran proiektuak ez zuen aurrez ikusten eta orain erreparatuko zaio.
- Era berean, prebentzio ordezkariarekin akordio batera iritsi da justizia auzitegi guztietan "ISTAS21 metodoaren arabera arrisku psikosozialak ebaluatzeko".
- Bestalde, indarkeria auzitegiaren zerbitzuak eskaintzen dituzten funtzionarioek aktore, biktimak eta erasotzaileekiko tratua hobetzeko argi eta garbi genero-indarkeria zer den, oinarriko kontzeptuak eta moduek ezagutu behar dituztenez, prestakuntza-ikastaro berezia antolatzen ari da. Eskaintzen den zerbitzua hobetzea izango du xede, neke emozional saihestezina prebenitzearekin batera.
- Zona publikoan segurtasun-zaintzailea eskatzeari dagokionez, proiektu berriak dagoeneko zehatz-mehatz xehatu diren segurtasun-neurriak ditu. Berriztatzaileak dira eta orain arte ez dira Euskadiko justizia jauregiaren ageri.

Azkenik, sailak argitu nahi du justizia abokatuari dagokion bulegoaren aldean segurtasuna gehiago bermatzeko, polizia judizialaren bulego bat dagoela, beraz, krisi-une batean horietara jo daiteke. Gainera, auzitegian banatuta beldurraren txirrinak daude.

Azaldutako ikusirik, hona hemen





Ondorioak

Lehenengoa.- Testu guztian aipatu den bezala, Arartekoa etengabe kezkatu ageri da genero-indarkeriaren emakume biktimei administrazio publikoak eskaintzen dien arretarekin, indarkeria hori gure gizartean gaitza baita. Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio publikoek ahalegin garrantzitsuak egin dituzte politika publikoak koordinatzeko. Betiere helburutzat izan dute talde horren arreta hobetzea. Ildo horri jarraiki, mugari garrantzitsu bat da *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea egiteko Erakundeen arteko II Akordioa*, 2019ko otsailaren 3koa, Emakundek sustatutakoa. Bai Lan eta Justizia Saila, bai Arartekoa akordioaren kide dira eta jarraipen batzordean nahiz erakundeen arteko talde teknikoaren bileretan parte hartzen dute, beraz, eremu judizialean genero-indarkeriaren biktimekiko arreta hobetzeko erakundeen arteko koordinazioa jarriakorra da eta bi erakundeen artean dirau, aztergai dugun kasu honetan egiaztatzen den moduan.

Beraz, lehenengo ondorioan Euskadiko justizia administrazioan genero-indarkeriaren emakume biktimei arretarekiko etengabe hobekuntzak bilatzeari begira, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak Arartekoarekin ardaztutako lankidetzaz azpimarratu behar da. Izan ere, etorkizunean adostasuna bilatzeko eredutzat har daiteke. Era berean, saila prozesu honetan esku-hartzaile guztien proposamenak eta gomendioak elkarriketa ireki eta oparoaren jarrerarekin barneratzen saiatu da. Arartekoak beste emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegi batzuetan etorkizunean egingo diren obretarako, orain egin den bezala, prozesuan esku-hartzaile desberdinak kontuan hartzea gomendatzen du eta, batik bat, hasieran Biktimei Arreta Zerbitzuari kontsultatzea, genero indarkeriaren emakume biktimei arreta eskaintzeko Lan eta Justizia Sailaren mendeko zerbitzu publiko aditua baita. Hori egin beharko litzateke lehenengo, bestelako operadore juridikoei kontsultatu baino lehen.

Bigarrena.- Nabarmendu nahi dut Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak egindako ahalegina dagoeneko 2018ko otsailean amaituak zeuden obrak aldatzearen inguruan proiektu berria egikaritzeko. Hala, Arartekoaren bitartez prozesuan esku hartu dutenen proposamenei erantzun zaie. Aurrekoari eutsiz, obrak ez dira behin betikotzat jo bi erakundeek, 4/2015 Legeak, apirilaren 27koak, delitu-biktimaren estatutuari buruzkoak, 20. artikuluan xedatutakoari jarraiki, biktimaren eta kaltegilearen artean kontaktua saihesteko eskubidea bermatua zegoela erabaki dugun arte. Dena den, betiere errespetatu da obrak sailak bere erantzunean aurkeztutako baldintzetan gauzatzea.

Hirugarrena.- Bai adostasuna bilatzeko kasu honetan jarraitutako ereduak, baita Gasteizko emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegirako obra-proiektu berriak eskubideak ziurtatu eta bermatzeko parametroak ere, oso aurrerapauso garrantzitsua dira Euskadin emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegiaren ereduak defini dadin. Nolanahi ere, azken helburuak biktimei eta justizia langileen



nahiz operadore juridikoen eskubideak bermatzea izan behar du. Modu horretan, eremu fisikoek nabarmenki lagun dezakete bigarren mailako biktimizazioa saihestera eta, gainera, gure antolamendu juridiko berme-emailearekin bat, akusatuek dituzten eskubide guztiak babestera.

Amaitzeko, Lan eta Justizia Sailari gonbita luzatzen diot, Euskadiko justizia administrazioan genero-indarkeriaren biktimekiko arreta hobetzeko orduan etengabeko ebaluazio iraunkorrarekin jarrai dezan. Izan ere, zeregin horretan une oro Arartekoaren lankidetzaz zintzoa eta berme-emailea izango du, orain arte gertatutakoaren antzera.

